


FRUIZKO kultur agenda

URTARRILA

9	EGUENA	UDALA	BILERA IREKIA: Fruizko Euskera Plana	19:00	Lurbarrin
10	BARIKUA	LAMIÑE	Truiuondo erresidentzia	17:00	Zamudio
26	DOMEKA	FRUNA	BILERA Balantzea eta ekintzak	meza ostean	Lurbarrin



2020an be Gurot "Euskal galderen unibertsoa" txapelketak jarraituko dau. Oraingoan aldaketa eta barrikuntza pilo eukiko doguz. 12-17 urteko gazteai zuzendutako app honen bidez hainbat sari lortu daitezke, laster 2020ko kanpainaren informazioa helarazoko jatzue.



Ipuin lehiaketaren sari banaketa izan zan Arrietan, giro ederra egon zan eta herrikide batzuen ipuinak saritu ziran, zorionak!



FRUIZKO UDALA

1. BILERA: Urtarrilaren 9an 19:00etan Lurbarrin

Herriko euskera sustatzeko plana lantzeko bilera eukiko dogu 9an, eta funtsezkoa da eragile guztien parte hartzea.

Bileran Fruizko euskeraren egoeraren argazki orokorra jasoko dogu danon artean, eta indargune eta ahulgune errealei erreparatuz hurrengo urteetako helburuak antolatuko doguz.

